



Bertso Udalekuak: eman izena!

Uda urruti dagoela iruditu arren, berehala helduko da eta horrekin batera baita Bertso Udalekuak ere. Bertso-eskolako kideentzat edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteak bazkide dutenentzat zabalduko da lehenik izen emateko epea. Martxoaren 6tik, martxoaren 20ko 12:00ak arte. Gainerako kideek martxoaren 24tik apirilaren 17ko 12:00etara izango dute izen emateko aukera.

Urteroko hitzordua izaten da askorentzat Bertso Udalekuena. Aurtengoan ere adin desberdinetako gazteentzat antolatu ditu Bertso Udalekuak Bertsozale Elkarteak. Azken urtetan bezala, izen emateko lehentasuna izango dute bertso eskoletako ikasleek edo gurasoetako bat Bertsozale Elkarteak bazkide dutenek.

Txanden xehetasunak

9-18 urte bitarteko izango dira aurten ere Bertsozale Elkarteak urtez urte antolatzen dituen Bertso Udalekuak. Aurten lau txanda izango dira, lauak uztailaren.

16-18 urte bitarteko gazteen egonaldia izango da lehena; Amaiurren egingo da uztailaren 8tik 17ra. Hura amaitu eta hurrengo egunean ekingo zaio Irañetako udalekuari, eta han izango dira 12-13 urte arteko gazteak uztailaren 24ra bitarte. Uztailaren 24tik 28ra 9-11 urtekoen txanda izango da, hauek Zuhatzan egingo dute euren egonaldia. Azkenik, 14-15 urte arteko gazteak Larraulgo aterpetxean elkartuko dira, uztailaren 25etik 31ra.

Prezioei dagokionez Amaiurko egonaldiak 360 euro balio du, Irañeta eta Larraulgoak 280 euro eta 245 euro



Zuhatzakoak. Informazioa jasotzen duen esku-orria www.bertsozale.eus atarian dago eskuragai. Maiatzaren 8rako esango da taldeak nola osatu diren.

Galderak izanez gero idatzi aisialdia@bertsozale.eus helbidera edo deitu 688643608 telefonora.

Bertsozale Elkarteak antolatzen ditu Bertso Udalekuak, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin eta Irizarren laguntzarekin.



AITOR MENDILUZE GONZALEZ
Amurrio, 2023-01-24
Tubacexeko grebaren datuak eta ondorioak.

Doinua: *Baneza eta banitu*

Zenbat datu, zenbat aipu hasi ta ezin amaitu ez jarraitu, ez jarraitu barrua minduko baitu. Isunak jarri, kalera bota zigorren bila epaitu langileria euren artean aurkakotu ta etsaitu. Laguntza bila nora jo gero nork babestu, nork lasaitu? Hori eman behar lizuketenak saldu egiten bazaitu. (bis)



Martxoaren 6an zabalduko da Bertso Udalekuetan izena emateko epea. //XDZ

Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusiak

Urtero bezala, Batzar Nagusien garaia izan ohi da Bertsozale Elkartearentzat urte sasoi hau. Arabarrak izan ziren Batzar Nagusia egiten goiztiarrenak. Urtarrilaren 15ean egin baitzuten Maeztun.

Hurrenez hurren, hauek dira gainontzeko batzarren datak eta lekuak.



Nafarroa: Otsailaren 25ean, larunbata, 11:00etan Iruñean, Nafarroako Bertsozale Elkarteen Egoitzan.

Bertsularien Lagunak: Martxoaren 4an, larunbata, 10:30ean, Senpereko Larraldean.

Bizkaia: Martxoaren 16an, ostirala, 18:00etan, Gernika-Lumoko Astran.

Gipuzkoa: Martxoaren 16an 18:30ean, Astigarragako Erribera Kulturgunean (erakusketa gelan).

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea: Martxoaren 18an, larunbata, 11:00etan Villabonako Subijana etxean. Bertsozale Elkarteen egoitzan.



Villabonako Subijana Etxean egingo da Bertsozale Elkarteen Batzar Nagusia. // XDZ

Xabier Unanue eta Patxi Goikolea bertsozaleek urteetan osatutako bertso gordailuaren dohaintza egin diote Xenpelar Dokumentazio Zentroari

Unanuek, besteak beste, Zestoan 30 urteetan izandako bertso ekitaldien grabazioak utzi ditu dokumentazio zentroaren eskutan. Goikolearen funtsak, aldiz, Leintz bailaran 1970 eta 1980ko hamarkadetan izandako bertso saioen grabazioak biltzen ditu batez ere.

Balio handiko bi dohaintza jaso ditu azken asteetan Xenpelar Dokumentazio Zentroak. Xabier Unanue bertsozale zestoarrak otsailaren 9an eraman zuen Villabonako Subijana etxera bere etxeko ganbaran jasota zuen bertso dokumentu bilduma. Besteak beste, 1976-2007 urte artean Zestoan izandako bertso ekitaldien, Santa Ageda bezperako eskeko saioen eta azken 60 urteetako Euskal Herriko hainbat bertso emanaldiren grabazioek osatzen dute bilduma. 320 grabazio inguru dira guztira, bai eta grabazio horietako 42.000tik gora bertso transkribatu eta bestelako bertso agiri sorta ere.

Bestalde, Patxi Goikolea bertso irakasle eta eragile arrasatearraren grabazio eta bertso bilduma ere jaso du Dokumentazio Zentroak urte hasiera honetan. 70eko hamarkada amaieran Almen bertso eskola martxan jarri Leintz bailaran bertsolaritza birsortzen asmatu zuten Xanti Iparragirre, Juanito Akixu eta Goikoleak, eta funts honek azken horrek garai hartan egindako bertso grabazioak biltzen ditu. 1970 eta 1980ko hamarkadetakako audio grabazioak dira batik bat, guztira 185 kasete. Bestalde, grabazio horietan jasotako 330 bertso sorta inguru transkribatu ditu Goikoleak, eta testu horien bilduma ere eskaini dio Xenpelar Dokumentazio Zentroari.

Bilduma hauek tokiko bertsolaritza ondarearen lekuko oparoa izateaz gain, azken hamarkadetako Euskal Herriko bertsolaritza mugimendua ezagutu eta ikertzeko altxor baliotsua dira. Urteetako lan mardul hau jasotzen duten bi funts hauek esker onez jasotzearekin batera, inbentarioa egin eta datozen hilabeteetan kontsultarako prest jarriko ditu XDZk bere egoitzan bertan.



Ezkerretik hasita, Andoni Egaña, Xabier Unanue, Oihana Aranburu, Jexux Iribar 'Olalde' eta Xebastian Lizaso, pasa den ostegunean Villabonan egindako dohaintzan. // XDZ

Martxoaren 25an egingo da Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen* topaketa

Algortan izango da topaketa aurtengoan; bertso bazkarirako txartelak salgai daude www.bertosarrerak.eus atarian.

Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen* II. topaketa egingo da martxoaren 25ean, Algortan. Iaz egin zen lehenengoz Markina-Xemeinen eta, orduko arrakasta ikusita, aurten berriro egitea erabaki dute.

12:30ean jarri dute hitzordua Algortako San Nikolas plazan. Poteoarekin hasi, eta 14:30rako bertso bazkaria antolatu dute Abian Kultur Elkartean. Jone Uria Albizuri eta Onintza Enbeita Maguregi ariko dira bertsoan. Bazkarirako txartelak salgai daude www.bertosarrerak.eus atarian, 17 euroren truke. Txartelak erosteko azken eguna martxoaren 16a izango da.

Topaketaren helburu nagusia bertsoaren inguruan dabilzan emakumeak batzea da, izan bertsolariak, bertsozaleak, gai-jartzaileak, epaileak edota antolatzaileak, elkar ezagutu eta saretzeko asmoarekin.



Iaz Markina-Xemeinen egindako topaketari jarraipena emango diote aurten Algortan. //XDZ

Badatoz Eskolartekoak!

Urtero bezala, iritsi da Eskolartekoen garaia eta ekainera bitarte herrialde guztietan egingo dira gaztetxoek bertso saioak. Haur eta gazteek jendaurrean kantatu ahal izateko, harremanak egiteko, euren hurbilekoak bertsozaletzeko eta antolakuntza lanetan ardurak hartzen ikasteko izaten da Eskolartekoa.

Gaztetxoei jendaurrean bat-batean jarduteko aukera ematea da helburuetako bat. Baita adin bereko haur eta gaztetxoak entzulearen aulkitik zaletzea ere. Bertsoaren bidez ikastoletan euskara eta euskal kultura sustatzea izan zen ekimen honen sorrerako sena.

Eskolartekoa abiatuko duen lehen herrialdea Gipuzkoa izango da. Martxoan abiatuko da eta datorren hileko ostiraletan jokatuko dira kanporaketak. Legazpin, Zarautzen, Errezilen eta Amezketan. Finala berriz, apirilaren 21ean jokatuko da Lasturren.

Maiatzean jokatuko dira gainontzeko herrialdeetako Eskolartekoak. Nafarroakoa maiatzaren 5an egingo da Iruñeko Laban.

Araban maiatzaren 5ean eta 11an egingo dituzte kanporaketak eta maiatzaren 20an jokatuko da finala Aramaion.

Bizkaian maiatzaren 9an egingo da lehen kanporaketa Ondarroan, maiatzaren 16an bigarrena Bilbon eta maiatzaren 17an hirugarrena Igorren. Finala maiatzaren 27an egingo da Gernika-Lumon.

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko eskolarteko kanporaketa maiatzaren 6an jokatuko da Azkainen eta finala berriz maiatzaren 27an izango da Itsasun.

Eskolartekoekin bukatzeko, Euskal Herriko finala ekainaren 3an egingo da lurretako frontoian.



Iurretan egingo da Eskolarteko finala ekainaren 3an. //XDZ



Puntu jarrita

AITOR IRASTORZA FADRIQUE

Zer gelditzen zaio bertsoaritzari gertatzeko? Zer dakarkio etorkizunak? Galdera potoloak egin dizkidazu, Hodei. Bertsoaritzaren etorkizunaz ariko naiz lehenik; etorkizuneko bertsoaritzaz espekulatuko dut gero.

Eguneroko plazak erakusten digu mugimendu bizia dela bertsoaritzaz, jendetsua, belaunaldi artekoa, gaztea, eta geroz eta heterogeneoagoa. Nafarroa Arenako argazkia horren erakusle. Errealitate horri heltzen badiogu, itxaropenerako motiboak dauzkagu bertsoaritzaren etorkizunaz. Hau horrela, noan etorkizuneko bertsoaritzaren zenbait hari-mutur irudikatuzera.

Zeri kantatuko zaio? Telebista edo paperezko egunkariekin baino, Twitter, Youtube, edo Twitch bezalako plataformekin hazi diren horien mundu-ikuskerak derrigor behar du ezberdina. Erruz, bertso-plazak islatuko ditu bestelako kezka, rol, eta pertsonaiak. Aurrekoari lotuak doazkio bestelako hainbat gogoeta-gai ere: espazio publikoaren jabegoa, zaleen dibertsifikazioa, eta ikus-entzunezko formatuen aldeko apustu handiagoa.

Nork kantatuko du? "Orduan gaiztat hartzen genitun / ta orain eurak gai dira" zioen Andonik. Ezagutuko ditugu kartzelan jaiotako haurrak bertsoan, ariko dira Ibrahimak oholztan, eta izango dira adimen artifizialeko makinak hezur-haragizkoen kantulagun, zeintzuek (adibidez) Lujanbioren diskurtsoa eta Egañaren errimategia izango dituzten sistema eragile.

Etorkizunak ekarriko du, halaber, Txapelketa Nagusiko finala Baionan. Eta Gasteizen. Bertso-eskola berriak Ahetzen. Eta Altzürükün. Doinu berriak zortziko handian. Eta sei puntuko motzean. Etorkizuna iragartzeko modurik onena berau sortzea omen. Bide-orri batzuk eskaini ditut lerrootan.

Hurrengo puntua, Santutxutik pasa eta AEBetara, Urtzi Urrutikoetxeari. Nola bizi du batek bertsoaritzaz atzerrian? Nola azaldu zer den bertsoaritzaz atzeritarrei?

Koplak

Lanku.eus berritua

Garai berriak apustu berriak behar ditu eta plazaren kudeaketa errazteko asmoz Lanku.eus-ek ataria berritu du. Zuen herrian edozein estilotako bertso saio edo ikuskizun berezi antolatzeko atari berriak erraztasunak emango dizkizu: bertsolariak eta gai jartzailea aukeratu, saioaren behar teknikoak zehaztu edo informazioa eskatzeko.

Sartu www.lanku.eus atarira eta eraman bertsoa zure etxera.

Poto-Finixa



Bertsolaria bere bakardadean.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Arabako Kuadrilla Artekoa azken txanpan

Urtarrilean hasi zuten Arabako Kuadrilla Arteko txapelketa. Herriz herri eta kanporaketaz kanporaketa azken txanpan sartu dira. Martxoaren 4an eta 12an jokatu dira bigarren eta hirugarren final aurrekoak Bastidan eta Murgian. Finala berriz, martxoaren 25ean izango da Laudioko Ekintzen Faktorian.

ANON YME POPULAR

Kontrataziorako marketina@lanku.eus helbidera idatzi edo **675.716.472** telefonora deitu

PUBLIZITATEA